

# Bideoen Edizioa, Grabaketa eta Streaming-a Software libreaz egiteko ikastaro praktikoa

10 ordu

Kodea FO2201

## Hartzaileak

Ikastaroa irakasle orokorrei zuzentzen zaie, bere eguneroko zereginetan edo puntualki bideoa lagungarri izan ahal zaienei.

Ez da beharrezkoa aurretiko ezagutzak izatea, oinarrizko mailatik hasiko da eta.

## Eskakizun teknikoak

Internerako konexioaz gain, ekipoak (PC edo eramangarria) honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- Gutxienez 4 GB-ko RAM eta prozesadorea i5 edo goragokoa.
- Sistema eragilea GNU/Linux (hobe egungoa, adib.  $\geq 18.04$ ) edo Windows
- OBS Studio eta Kdenlive programak instalatuta, edo bestela instalatzeko baimenak (instalatuta ez badaude, lehenengo saioan jarraibideak azalduko dira).

## Sarrera/Ikastaroaren deskripzioa

Gaur egun bideo formatua gero eta gehiago topatzen dugu gure eguneroko komunikazioetan: bideokonferentziak, sare sozialak eta web edukiak, bapateko mezularitzaren bidezko bidalketak,... Baliabide honek pandemia garaiarekin garrantzi handiagoa hartu du, telelenera moldatzeko beharrean. Irakasle gisa, bere erabilpen progresiboa planteatu ahal diogu gure buruari, irakaskuntza jarduera aberasteko nahian.

Tailer honek ezagutza teorikoak eta batez ere praktikoak garatzea gura du, bideo materialak editatzeko, zuzeneko grabaketak egiteko eta gero streaming-en bidez hedatzeko.

Hurrengoak ikusiko dira: audioko eta bideoko oinarrizko kontzeptuak (kodeak, kontainerrak, kalitatea,...), iturri gordinetatik edizioa, iturri sinkronoekin grabazioa, eta streaming edo interneten bidezko hedatzea sarearen 50 plataforma publiko baino gehiagoren zehar. Gainera, aurrekoa oinarrizko ezagutza juridiko batzuekin osatuko da, bai erabilitako baliabideekin lotuta, bai lortzeko bideoei dagokienarekin.

Tailerra software librezko lizentziekiko tresnen bidez jorratuko da. Zehazki, bideoak editatzeko Kdenlive programa erabiliko da, eta grabaketarako eta igortzeko, OBS Studio programa. Biak azken bertsiotan.

Programa hauek oinarrizko edo maila ertaineko erabiltzaileen beharrak ondo baino hobeto asetzen dituzte, eta merkatuko beste antzeko programak ez bezala, bere prezioa zero eurokoa da funtzionalitateak murriztu barik. Honez gain, bere lizentziaren abantaila zera da: edozein pertsonak nahi dituen ekipoetan lege-arazorik gabe ("pirata" lelopean) instalatu dezake. Are gehiago, programak hobetzeko prest dauden pertsonentzat, garapeneko partaidetza zabalik dago.

Bi programak Windows-erako eta GNU/Linux-erako multiplataformakoak dira (OBS Studio Mac OS X-erako ere eskuragarri dago), eta erabiltzeko interfazea euskara, gaztelania, edo beste hizkuntza askotan aurki daiteke.

Aurrean esandakoa osatzeko, internet baliabide ezberdinak ikusiko dira non irudi, audio eta bideo materialak aurkitu daitezkeen, beti berrerabiltzeko lizentzia egokidunak; eta OBS Studioren kasuan, plugin eta script ezberdinak bere funtzionalitateak gehitzeko.

## **Ikastaroan garatuko diren gaitasunak**

- Bideoak lantzeko programa mota ezberdinak ezagutzea, oinarrizko ediziotik 3Dko filme errenderizaziora, adibide batzuk ikusiz.
- Gaur egun dauden lizentzia askeak eta pribatiboak ulertzea, bai software arloan bai ikastaroarekin loturiko baliabideei buruz (irudiak, audio, bideo), haien ezberdintasunak eta eredu bakoitzaren abantailak eta desabantailak barneratuz.
- Audio eta bideo oinarrizko kontzeptuak ikustea, gero edizioa, grabaketa eta streaming egiteko.
- Kdenlive-ren bidez bideoak editatzen eta errenderizatzen ikastea, baliabide gordinen bidez edo berezko grabaketen bidez, efektuak eta trantsizioak gehituz, audio zuzenketak, azpitulazioak eta kredituak, eta abar.
- OBS Studio-ren bidez zuzeneko grabaketa eta audio eta bideo streaming egiteko lan fluxua ulertzea eta aritzea, bere funtzionalitatea hedatzeko luzapenen eta script-en instalazioraino helduz
- Aurreko guztirako interneteko baliabideak ezagutzea: berrerabiltzeko irudietako, audio eta, bideoetako eskura dauden materialak, plugin eskuragarriak, eta sakontzeko ikas baliabideak.

## **Edukiak**

- Ikastaroaren aurkezpena. Sarrera. Instalazioa.
- Audioko eta bideo oinarrizko kontzeptuak. Bideoa lantzeko software motak.
- Software eta sormenezko materialetarako lizentziak.
- Berrerabiltzeko interneteko baliabideak.
- Kdenlive erabilpena.
- OBS Studio erabilpena.

## **Metodologia**

Ikastaro ez presentziala (egelapi).

Ikastaroa oso praktikoa da oroz gain. Aurkezpenak erabiliko dira zati teorikoetan, lortu nahi deneko adibideak ikusiko dira, eta esandako tresnen bidez planteaturiko ariketa batzuk ebatziko dira.

## Ebaluazioa /Egiaztapena

Ikastaroaren egiaztagiria lortzeko saio guztietan proposatzen diren jarduerak egin beharko dira.

## Datuak

### Iraupena

10 ordu.

### Datak eta ordutegia

Urtarrilaren 18a (15:00-19:00), 19a eta 20 (15:00-18:00).

### Tokia

<https://egelapi.ehu.eus/course/view.php?id=1779>

### Parte-hartzaile kopurua

15 gehienez

### Hizkuntza

Euskara

### Campus

Online sinkronoa

### Irakaslea:

Jose Daniel Gutiérrez Porset. Komunikazioen Ingeniaritza Saila. Bilboko Ingeniaritza Eskola.

### Izena emateko epea

Deialdia zabaldu eta astebetetz luzatuko da izena emateko epea

### Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Izena langileen atariaren bidez eman beharko da. Ikasle kopurua mugatua izanik, partaideen izena ematearen ordenari, aukeraren lehentasunari eta campusari jarraiki hautako dira.

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko.